

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalaren Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko apirilaren 30eko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita administrazio batzarrei dirulaguntzak eta bestelako baliabideak emateko, 2019. urtean obra txikiak egiteagatik

BDNS (identifikatzailea): 453280

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke Iruña Okako udalerriko administrazio batzarrak.

Bigarrena. Xedea

Dirulaguntza jasoko dezakete udalerrri honetako kontzejuen eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuekin loturiko programa hauek:

a) Oinarrizko azpiegiturak (ura, saneamendua, argiteria, bide publikoak, etab.), eraikin publikoak eta berdeguneak gauzatu, mantendu eta hobetzeko obrak. Horren barruan sartzen dira Arabako Foru Aldundiak lan txikietarako programaren bitartez finantzatutako lanak edo inbertsioak.

b) Altzari publikoak eta ekipamendua eskuratzea, mantentzea edo hobetzea. Gainera, barne egongo dira erakunde publikoek diruz lagundutako programen bitartez udalak burututako obren ondorio diren materialak edo bestelako jarduketa kostuak.

c) Kanpo uzten dira kontzejuren beraren funtzionamendu gastu arruntak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 30ean onetsitakoak. Udalaren web orrian argitaratu ziren.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren zuzkidura 5.000,00 eurokoa da, administrazio batzar bakoitzarentzako zenbateko finkoa. Gainerakoa, aurrekontuaren partida osoa agortu arte, administrazio batzarren artean banatzeko, udalerrria osatzen duten herrietako bakoitzean 2019ko urtarrilaren 1ean eroldaturik zeuden biztanleen kopuruaren arabera.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik 2019ko azaroaren 30era arte.

Iruña Oka, 2019ko apirilaren 30a

Alkate-Lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA